

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIK

Europako Abiadurako Patinaje Txapelketak hogeita bat selekzio bilduko ditu Iruñean

2019ko abuztuaren 25etik irailaren 1era berrogeita hamar proba inguru egingo dira espezialitate hauetan: pista, zirkuitua eta maratoia

Asteartea, 2019.eko martxoak 12

Gaur goizean, Ana Herrera Kultura, Kirol eta Gazteriako kontseilariak Europako Abiadurako Patinaje Txapelketa aurkeztu du. Txapelketa 2019ko abuztuaren 25etik irailaren 1era egingo da, Iruñean, espezialitate hauetan: pista, zirkuitua eta maratoia. Condestablearen jauregian egin den ekitaldira bildu dira Joseba Asirón Iruñeko alkatea, Sergio Parra Nafarroako Iristaketa Federazioko lehendakaria, Carmelo Paniagua Espainiako Iristaketa Errege Federazioko lehendakaria eta Pedro Sarasibar Abiadurako Patinajeko Europako Txapelketaren zuzendari exekutiboa.



Herrera kontseilaria, Goñi zuzendaria, Asirón alkatea, federazioetako ordezkariak eta kirolariak Condestablearen jauregian.

Iruñera hogeita bat selekzio etortzea espero da. Selekzio horiek gazte, junior eta senior kategorietakoak dira eta hiru espezialitate hauetan lehiatuko dira: pista, zirkuitua eta maratoia. Lehenengo bi espezialitateetako probak Txantrea KKEren instalazioetan eta Antoniuttiko parkean egingo dira, hobetzeko eta egokitzeko obrak amaitutakoan. Eta maratoia, berriz, Sarasate pasealekuan hasi eta amaituko dena, hiriko kaleetan zehar egingo da.

Inaugurazioa abuztuaren 25ean egingo da, arratsaldez, Txantreako KKEn. Hona hemen kirol-egutegia: abuztuaren 26an, 27an eta 28an pistako probak; abuztuaren 30ean eta 31n zirkuitu-probak, eta irailaren 1ean maratoiko proba. Guztira 50 bat proba egingo dira, goizez sailkapenekoak eta arratsaldez finaletakoak.

Nafarroako Gobernuak 2019ko aurrekontuetan 100.000 euroko partida izenduna jasota utzi du Europako Abiadurako Patinaje Txapelketarako. Espainiako Iristaketa Errege Federazioa eta Nafarroako Iristaketa Federazioa dira Txapelketaren antolatzaileak.

Iruñean egin den azkeneko Nazioarteko Iristaketa Txapelketa, kategoria absolutuan, 1998koa da, Munduko txapelketarekin bat etorriz.